

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariaren hitzaldia

ALTZOKO HERRIARI HIRU HAGIN:

ATZOKO GIPUZKOAKOA GAURKO ETA BIHARKOENTZAT

Eider Mendoza, Gipuzkoako diputatu nagusi andrea,
Xabier Olano, Altzoko alkate jauna,
Batzarkideak eta zinegotziak, altzotarrak,
Egun on eta eskerrik asko zuen herrian hartzeagatik.

Lehenik aipamena egin nahiko nuke hil berria zaigun Jon Esnalena, Batzar Nagusietako lehendakari izana 1991tik 1995era, haren sendiari eta lagunei gure doluminak bidaltzeko.

Ipuscuatik Gipuzkoara, 1000 urte. “Oro ez da urre”, esan zuen batek. Egia da. Gipuzkoako milurteko historian dena ez da ederra. Baina gauza batzuk bai, badira, eta gure historiatik hartzen eta eguneratzen jakin dugu.

Batzar Nagusiek Altzoko herriari opari egiten dioten hiru hagin landatzera goaz. Gipuzkoako armarrarian ageri den ikurretako bat dira. Orain 300 urteko foruak dio haginak direla armarriko zuhaitzak. Eta hiru dira. Zergatik ez lau, edo bakarra? Historialariek diote armarrarian egoki geratzeko zenbaki bat baino gehiago dela hiruko hori. Gipuzkoa gorpuzten ari zen garaiko ikurtzat dituzte: hiru hagin, Gipuzkoako hiru bailarak irudikatzen: bata, Segura eta Ordiziako bailara; bestea, Arrasate eta Bergarakoa; eta hirugarrena, Kostaldea. Batzar Nagusiek hiru bailaretan egiten zituzten bilerak, txandaka, horretarako izendatutako herrietan.

Herriek beren borondatez erabaki zuten elkartzea Gipuzkoa eratzeko. Erabaki horren sustrai sakonak elkartasuna eta berdintasuna dira. Gizakia ulertzeko zuten hidalgia unibertsala, kaparetasuna, Gipuzkoaren antolaketa heldzen zen, hain zen balio indartsua berdintasuna: Batzar Nagusiak izendatutako herrietan egiten zituzten, bailaraz bailara, berdintasun zentzuz. Inor ez bestea baino gehiago. Berdintasun zentzua DNAn dakar Gipuzkoak, mendez mende. Aldi odoltsuetan ere, bagenuen zeri heldu gipuzkoarrek giza duintasunera itzultzeko eta zapalketak gainditzeko, **onginahiz eta itxaropenez. XXI. mendean ere asko balio du berdintasunean elkartasuna eraikitzen kultura propioa izateak, gizarte politika edo zerga antolaketa bidezko batzuk garatzeko, kanpokora adi eta geureari eutsiz.**

Bestetik, zuhaitz hauek lurrian landatuko ditugu. Ez lurrian bakarrik: euskal lurrian. Ezin dut ahaztu, 1000 urteko historia honetan, **Gipuzkoak herri ikuspegia duela eta Euskadiko parte dela, bere borondatez.** Haginak medio, beste arbola bat datorkit gogora: **Gernikako Arbola.** Gure zuhaitzek askatasunaz hitz egiten digute, lur honetan aske eta bakean bizitzeko eskubidea dugun jendeaz, bere



etorkizuna erabakitzeko eskubidea duen herriaz. Ez isolatuta bizitzeko eta ez elkarren aurka, bakean eta elkarri irekita baizik, Estatuan nahiz Europan. Elkar errespetatuz eta gureari uko egin gabe. Adibidez, **euskara defendituz**, gurea delako, antzinako gipuzkoarrena zen bezala, eta gure ondorengoei utzi nahi diegulako beste ezerek ez bezala elkar ezagutzen eta batzen gaituena: gure hizkuntza zahar eta berria, euskara.

Zuhaitz parajea da Altzo inguru hau. Ezin bukatu Imazen Pagoaz hitz-erdi bat esan gabe. Huraxe bai handia, galanta pago horren gerria! Ez ditu mila urte, baina bai ia bi mende, 1836ko arbolak. **Irauteko landatua, politikaren helburua dena: iraupena.** Hiru hagin gazte hauek ere bizi daitezela luzaro, sinbolizatzen duten ondasuna gordez: Gipuzkoa, Euskal Herrian errotuta eta mundura zabalik haz dadin, elkartuta eta zutik bizi gaitezen Euskadin.

Xabier Ezeizabarrena Saenz

Altzo, 2025-03-23

